

GOBERNU BATZARRA

2016. 07. 18

| | |
|--|---|
| Alkatea: | Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamaseiko uztailaren hemezortzian, |
| Olatz Peon Ormazabal | goizeko 08:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko. |
| Zinegotziak: | |
| Patxi Amantegi Zubiria Nerea Letamendia Belloso Jokin Azkue Arrastoa Iñigo Alonso Sarasibar | 1.- Aurreko akta onartzea. 2.- San Frantzisko 32-34-36ko 12.4 Azpi-Eremuaren Hirigintzako Jarduketa-Programa. |
| Idazkaria: | 3.-2015eko Gazteriako dirulaguntzak: Mendu Astialdi Eskolari murrizpena. |
| Jose Luis Unanue Ugalde | 4.-23/2016 zenbakia duen faktura-zerrenda. |

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2016ko uztailaren 11n egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- San Frantzisko 32-34-36ko 12.4 Azpi-Eremuaren Hirigintzako Jarduketa-Programa.

2016ko maiatzaren 9an, Gobernu Batzarrak San Frantzisko 32-34-36-ko 12.4 azpi-eremuaren hirigintzako jarduketa-programari hasierako onarpena eman zion.

2016ko maiatzaren 19an, Gipuzkoako Buletin Ofizialean argitaratu zen hasierako onarpena.

2016ko ekainaren 8an, Gotzon Sarasola Agirre jaunak eta beste interesatu batzuk alegazioak egin zituzten. Alegazio horien arabera bi gauza eskatzen zituzten. Alde batetik, Plan Orokorren erabateko deuseztasuna lege ezarritako prozedura alde batera guztiz utzita onartu zelako eta, bestetik, Hirigintzako jarduketa-programa beraren deuseztasuna.

Alegazio horien berri eman zitzaion Jarduketa-programaren sustatzaileari eta honek aurkeztu zuen alegazio horien aurkako idatzia, 2016ko uztailaren 7an.

Bestalde, 2015eko azaroaren 23an, Gobernu Batzarrak hasierako onarpena eman zion San Frantzisko 32-34-36-ko 12.4 azpi-eremuaren hirigintzako jarduketa-programari. Orduan ere alegazio idatzia aurkeztu zuen, oraingo alegazioen sinatzaile batek, Ana Isabel Sarasola Pagadizabalek.

2016ko martxoaren 7an, Gobernu Batzarrak alegazioetako bat onartu zuen txosten ekonomiko-finantzarioak akatsak zituelako eta, ondorioz, ez zitzaion eman jarduketa-programari behin betiko onarpena.

Espediente horren baitan Joseba de Beristain Egia abokatuak txosten juridiko bat egin zuen eta hori hartu zen akordioaren oinarri gisa.

Oraingo honetan ere txosten juridiko bat egin du Joseba de Beristain Egia abokatuak eta honako ondorioetara iristen da:

- Ez dago arrazoi juridikorik Plan orokorra deuseztatzeko.
- Eta ez daude inolako arrozoi juridikorik jarduketa-programa ez onartzeko.

Aipatutako kontuan izanik, eta Hirigintza eta Zerbitzu departamentuko koordinatzaileak egin duen txostenarekin bat etorritz, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- San Frantzisko 32-34-36-ko 12.4 azpi-eremuaren hirigintzako jarduketa-programari Gotzon Sarasola eta beste batzuk egindako alegazioak ez onartzea, Joseba Beristain Egia abokatuak egindako txostenak oinarri hartuz.

BIGARRENA.-San Frantzisko 32-34-36ko 12.4 azpi-eremuaren hirigintzako jarduketa-programa behin betiko onartzea, Gobernu Batzarrak 2016ko maiatzaren 9ko akordioan jasotako baldintzekin.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Gotzon Sarasola Agirre jaunari eta hirigintzako jarduketa programaren sustatzaileari, Joseba Beristain Egiak egindako bi txosten juridikoekin batera. Horiek erabaki honen motibazio gisa hartuko dira.

LAUGARRENA.- Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta, horrekin batera, baita edukien laburpen bat ere. Laburpenean honoko hauek jarriko dira, gutxienez: eremuaren identifikazioa, sailkapena eta kalifikazioa: eremuari izendatutako hirigintza-erakigarritasun; jarduketa-sistema; aurrekonta; eta urbanizatzeko lanak eta, hala dabagokio, eraikuntzakoak egikaritzeko programazioa.

3.- 2015eko Gazteriako dirulaguntzak: Mendu Astialdi Eskolari murrizpena.

Mendu Astialdi Eskolari emandako dirulaguntza zuritzerakoan, kontuen defizita emandako dirulaguntza baino txikiagoa izan dela ikusita, eta espedientean agertzen diren txosten teknikoarekin bat etorritz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 2015eko azaroaren 16an emandako dirulaguntzaren ordez, Mendu Astialdi elkarteari 813,81 euroko dirulaguntza ematea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Kultura eta Gazteria departamentuari eta Mendu Astialdi Eskolari.

4.-23/2016 zenbakia duen faktura-zerrenda.

Kontuhartzaitzak **23/2016** faktura zerrenda aurkeztu du; **245.489,73 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda aztertutik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **23/2016** faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:00etan.

ALKATEA

DAZKARIA

Olatz Peon Ormazabal

Jose Luis Unanue Ugalde

